## ANTZUOLAKO UDALA

*Eztala kirol ekipamenduaren erabilera arautzen duen udal Ordenantza. Behin betiko onespena eta testua publikatzea.*

Udalbatzarrak, 2013ko martxoaren 5ean egindako bilkuran erabaki zuen, Eztala kirol ekipamenduaren erabilera arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena ematea.

Aipatu ordenantza jendaurrean jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikoz onartutzat geratzen da Udalbatzarreko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez, Ordenantzaren behin betiko testua, iragarki honi jarraian datorkiona izanik.

Bide administratiboan behin-betikoa den erabaki honen aurka jo daiteke Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietara Salaren arrean administrazioarekiko auzi errekurtsoa sartuz, argitara ematen den egunaren biharamunetik arrera kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Antzuola, 2013ko maiatzaren 10a.—M.ª Inmaculada Beristain Aramendi, Alkatea. (4923)

### EZTALA ANTZUOLAKO FUTBOL ZELAIAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA

*Lehenengoa:*

Eztala Antzuolako futbol zelaia futbolean jokatzeko izango da, beti ere, fubola sustatzeko asmoz. Hauxe du helburutzat Antzuolako udalaren araudi honek: Instalazio horren baldintzak arautzea, hori guztia, ekainaren 11koa, EuskadikoEuskal Kirolaren 14/1998 Legearen xedapenen arabera.

*Bigarrena:*

— Zelaiari dagokionez:

Instalazioko elementu mugikorrak ez dira belar gainean arrastaka erabiliko.

Debekaturik dago porteriak tokiz aldatzea.

Kirolen batean jarduteko zelai barruan tresnak ipintzea beharrezkoa balitz, horiek kontuz garraiatu beharko dira, arrastaka eramateke. Aipatutako tresnek kantxaren zorua hondatuko ez duen euskarri baten gainean egon beharko dute.

Debekaturik dago belar artifiziala honda dezakeen edozein jarduera, hala nola, edozein gauza jaurtitzea (pisuak, jabalinak, hondakinak, etab.).

Zelaian ezingo da hau honda dezakeen ezer jan (pipak, fruitu lehorrak, gozokiak, e.a.), ez edan eta erretzea ere debekaturik dago.

Futbol zelaian erabili beharreko oinetakoek, gomazko zolak edota takoak eduki beharko dituzte. Ahal izanez gero, tako ugaridunak izan beharko dute eta orpo aldean gutxienez 4 tako izan beharko dituzte.

Futbol zelaian ohikoa ez den edozein gauza sumatu bezain laster, udalari aditzera emango zaio konpon dezan.

Instalazioak erabili ahal izango dira aldez aurretik programaturik edo baimendurik badaude.

*Hirugarrena:*

— Instalazioei dagokienez:

## AYUNTAMIENTO DE ANTZUOLA

*Ordenanza municipal reguladora del uso del equipamiento deportivo Eztala. Aprobación definitiva y publicación del texto.*

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 5 de marzo de 2013, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza que regula el uso del equipamiento deportivo Eztala.

La ordenanza estuvo en exposición pública durante 30 días, y no habiéndose presentado reclamación u observación alguna, ha sido elevada a definitiva, de conformidad con lo dispuesto en el acuerdo del Pleno Municipal, lo que se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, así como el texto definitivo de la Ordenanza que es el que se adjunta a este anuncio.

El acuerdo, definitivo en la vía administrativa, podrá ser impugnado mediante recurso contencioso—administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación.

Antzuola, a 10 de mayo de 2013.—La Alcaldesa, M.ª Inmaculada Beristain Aramendi. (4923)

### REGLAMENTO PARA EL USO DEL CAMPO DE FUTBOL EZTALA DE ANTZUOLA

*Primero:*

El campo de fútbol Eztala de Antzuola se destinará a la práctica y, en cualquier caso, a la promoción del fútbol. Lan finalidad de este reglamento del Ayuntamiento de Antzuola es regular el uso de dicha instalación, en consonancia con la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

*Segundo:*

— Sobre el campo:

Los elementos móviles de la instalación no se podrán mover a rastras por la hierba.

Se prohíbe cambiar de sitio las porterías.

Si para desarrollar algún deporte es preciso colocar materiales en el campo, dichos materiales se deberán transportar con sumo cuidado, sin arrastrarlos por el suelo. El material deberá colocarse sobre un soporte que no deteriore el suelo.

Se prohíbe cualquier actividad que pueda deteriorar la hierba artificial, como por ejemplo el lanzamiento de pesos, jabalinas, residuos, etc.

Para evitar su deterioro, se prohíbe comer (pipas, frutos secos, golosinas, etc.), beber y fumar en el campo.

El calzado que se emplee en el campo de fútbol deberá ser de suela o de tacos de goma. En la medida de lo posible, deberán utilizarse calzados con gran número de tacos, y en la parte del talón los tacos deberán ser de la medida 4.

En el caso de percibir algo no habitual en el equipamiento deportivo, se dará cuenta de ello al Ayuntamiento, para que dicha institución resuelva el problema.

Las instalaciones se utilizarán en base a una programación y un sistema de permisos previamente acordados

*Tercero:*

— Sobre las instalaciones:

Aldagela barruan ez da baloi eta halakoekin ariketa fisikorik egingo.

Instalazio barruan gizalegez eta errespetuz jokatu beharko da.

Erabilera desegokiaren ondoriozko kalteak gertatuz gero, erabiltzaileari edo egileari eskatuko zaio erantzunkizuna eta berak ordaindu beharko ditu kalte-galerak.

*Laugarrena:*

Lehenengo arauan ezarritakoaren arabera, AKE futbol taldeak izango du Eztalan ibiltzeko lehentasuna.

Bestetik, Lurralde Futbol Federazioak futbol zelaia 10 urtez erabiltzeko baimena du, 2009ko martxoaren 4an udalbatzarrak onartutako hitzarmenari esker.

Eztala libre baldin badago, txanda eskatu beharrik ez da izango, eta ez da ezer ordaindu beharko. Nolanahi ere, erabilera libreko orduetan haurrek, 18 urtetik beherako gazteek eta antzuolarrek izango dute lehentasuna. Kanpotarren aurrean lehentasuna beti antzuolarrek izango dute.

Eztalan gehienez ordubetez jokatu ahal izango da.

Eztalan antzuolarrak ez direnak jokatzen ari badira, eta herritarrak azaltzen badira jokatzera, herritarrek dutenez jokatzeko lehentasuna, kanpotarrek jokatzeari utzi egin beharko diote.

*Bosgarrena:*

Ikasturtero, uztaileko lehen astean, ordu-eskaera txanda bat irekiko da, jendeak izena eman dezan, futbol zelaia erreserbatzeko eskubidearekin. Horretarako aukera dagoela udal baliabideen bidez jakinaraziko da.

Eskatzaile bakoitzak bere taldea osatzen dutenen izenak eman beharko ditu udaletxean, zozketa egin baino bost egun lehenago.

Abuztuan ez da erreserba eta ordu-eskaera txandarik izango.

*Seigarrena:*

Erreserba egiten denean ordu bererako talde batek baino gehiagok izena emanez gero, talde horien artean zozketa egingo da. Nolanahi ere, Antzuolako bizilagunek lehentasuna izango dute, eta horrelakotzat hartzen dira gutxienez taldeko erdiak Antzuolako bizilagunak edo bertan jaioak direnean. Libre geratzen diren orduak beste udalerrietakoen artean banatuko edo zozketatuko dira.

— Zozketaren prozedura:

Lehenengoaren edo titularraren izena bakarrik sartuko da zozketan.

Eskatzaile edo talde-titularren izen guztiak lehenengo zozketan sartuko dira. Izenak agertzen diren neurrian, hauek asteko taulatik ordu bakar bat aukeratu ahal izango dute.

Ordu libreak herritik kanpoko eskatzaileen artean zozketatuko dira, eta prozedura berdina jarraituko da.

Zozketa jendaurrean egingo da, udaletxean. Horretaz arduratuko direnak kirol zinegotzia eta teknikaria izango dira. Kirol zinegotziak behar dituen ahalmenak izango ditu zozketa egiterakoan sortzen den edozein arazo konpontzeko.

Dentro de los vestuarios no se podrá jugar al balón ni realizar ejercicios físicos con balones.

Dentro de la instalación se guardará un comportamiento cívico y respetuoso.

En el caso de que a causa de una utilización incorrecta se produzcan desperfectos, se exigirá al usuario o al autor la responsabilidad que le corresponda, como por ejemplo el pago de los daños y desperfectos.

*Cuarto:*

Según los dispuesto en el primer punto, el equipo de fútbol AKE tendrá preferencia en el uso del campo de fútbol Eztalan.

Por otra parte, la Federación Guipuzcoana de Fútbol goza de una autorización de 10 años para el uso del campo, en base al convenio acordado por el Pleno el 4 de marzo de 2009.

Si el campo de fútbol Eztala se encuentra libre, no será necesario pedir la vez y no habrá que abonar cantidad alguna. De todas formas, durante el horario de uso libre, los niños y jóvenes menores de 18 años de Antzuola tendrán prioridad de uso. Los residentes de Antzuola tendrán siempre prioridad ante los residentes de otros municipios.

El campo de fútbol Eztelan se podrá utilizar durante una hora como máximo.

Si las personas que están practicando en el campo de fútbol no son de Antzuola y aparecen con la intención de jugar personas que sí son del municipio, las de Antzuola tendrá prioridad y, por lo tanto, las foráneas deberán abandonar el campo.

*Quinto:*

Cada curso, la primera semana de julio, se abrirá un turno de reserva de horas, para que se inscriba la gente con derecho a reservar el campo de fútbol. Dicha posibilidad se transmitirá por medio del Ayuntamiento.

Cada solicitante deberá dar en el Ayuntamiento los nombres de los componentes del grupo, cinco días antes de realizar el sorteo.

Los festivos y en agosto no habrá reservas o turnos de solicitud de hora.

*Sexto:*

Si en el momento de realizar la reserva existe más de un grupo que solicita la misma hora, se realizará un sorteo entre esos grupos. De todas formas, los habitantes de Antzuola tendrán prioridad, y tendrán esa consideración cuando al menos la mitad de los componentes del grupo residan en Antzuola o sean originarios de Antzuola. Las horas que queden libres se podrán distribuir o sortear entre los residentes de otros pueblos.

— Procedimiento del sorteo.

Se incluirá en el sorteo el nombre del primero o del titular del grupo.

Los nombres de todos los solicitantes o titulares de grupos se incluirán en el primer sorteo. A medida que salgan los nombres, estos podrán elegir una hora del cuadro semanal

Las horas libres se sortearán entre los foráneos siguiendo el mismo procedimiento.

El sorteo será público y se realizará en el Ayuntamiento. El concejal y técnico de deportes se encargarán del sorteo. El concejal de deportes tendrá las competencias necesarias para resolver los problemas que puedan surgir durante el sorteo.

*Zazpigarrena:*

Eztala erabiltzeko tarifak ordenantzen bidez ezarriko dira:

Tarifan zelaia erreserbatzea dago aurreikusita.

AKE salbuetsita dago eta ez du inolako ordainketarik egingo Eztalako instalazioak erabiltzearren.

*Zortzigarrena:*

Izena emandakoei txandarren emaitzen berri Antzuolako jaien ondorengo astean emango zaie.

Hartara, erreserbadunek irail hasieratik egutegi berriaren arabera jokatzeko aukera izango dute.

*Bederatzigarrena:*

— Tarifak ordaintzea:

Tarifen ordainketak hilero kobratuko dira transferentzia bidez.

Tarifa ordaintzen ez duten eskatzaileek ordu-erreserba galduko dute, beraz, ordu horiek hutsik geratuko dira beste jokalarientzat.

Tarifa kobratu eta gero ez da onartuko erreserbak baliogabetzea.

*Hamargarrena:*

Erreserbaren eskatzailea arduratuko da futbol zelaia lehen zegoen moduan lagatzeaz, hau da, garbi, txukun eta tresna barik. Bera izango da beti talde horren erantzule.

Eztalaren erabilera desegokia egiten bada, Udalak erabilera baimena bertan behera lagatzeko eskubidea izango du. Eta hala badagokio, zehapen bidea ireki dezake.

Aldagelak edozein pertsona edo taldek erabili ahal izango ditu, erabilera horren premia ikusten denean, Udalari aurrez eskatu eta horretarako baimena ematen duenean.

Hamaikagarrena: Entitate edo elkarteetako ikasle edo futbolariak, kirolean dihardutenean, joko-arduradunaren, irakaslearen, begiralearen etabarren zuzendaritzapean egondo dira, eta azken hauek izango dira beti taldearen erantzule. Osterantzeko txandetan, erabiltzaileena izango da ardura hori.

*Hamabigarrena:*

Udalak ez du bere gain hartuko Eztalan gerta daitekeenaren erantzukizunik; erantzukizuna edozein motatakoa dela ere: Zibila, penala, edo administratiboa.

*Hamahirugarrena:*

Udalak ez du izango kirolean gertatutako istripuen erantzukizunik.

*Hamalaugarrena:*

Udalaren eskumenekoa izango da araudi honen aplikazioan sortutako zalantzen gaineko erabakiak hartzea eta aipatutako araudian aldaketak egitea, instalazioen erabilera hobetzeko helburuarekin.

Indarrean dagoen araudia, tarifak, orduen eta erreserben taula futbol zelaiko oholean egongo dira.

*Séptimo:*

Las tarifas por el uso del capo de fútbol Eztala se establecerán mediante ordenanzas fiscales:

En la tarifa está prevista la reserva del campo.

El equipo de fútbol AKE está exento de pago y, por lo tanto, no deberá satisfacer cantidad alguna por el uso de las instalaciones de Eztala.

*Octavo:*

El resultado de los turnos se comunicará a las personas inscritas la semana posterior a las fiestas de Antzuola.

De esa forma, quienes tengan una reserva podrán empezar a jugar desde principios de setiembre de acuerdo con el nuevo calendario.

*Noveno:*

— Pago de las tarifas:

Las tarifas se abonarán mensualmente mediante transferencia.

Los solicitantes que no abonen la tarifa perderán la reserva realizada y, por lo tanto, esas horas quedarán libres para otras personas.

No se admitirán anulaciones de reservas una vez cobrada la tarifa.

*Décimo:*

Es responsabilidad del usuario de la reserva dejar el campo de fútbol en las condiciones anteriores a su utilización, es decir, limpio, ordenado y sin ningún tipo de material. Dicho usuario será quien responda del grupo.

Si se hace un uso no adecuado del campo de fútbol Eztala, el Ayuntamiento podrá invalidar la autorización de uso. Y en su caso, podría iniciar la vía sancionadora.

Cualquier persona o grupo podrá utilizar los vestuarios, cuando resulte necesario, previa solicitud y autorización del Ayuntamiento.

Undécimo. Los alumnos o futbolistas de entidades o asociaciones que practiquen deportes en la cancha estarán supervisados por el responsable de juego, el profesor, el monitor, etc, quienes se responsabilizarán del grupo en todo momento. En los turnos restantes, dicha responsabilidad corresponderá a los usuarios.

*Duodécimo:*

El Ayuntamiento no se hace responsable de lo que pudiera ocurrir en el campo de fútbol Eztala, cualquiera que sea esa responsabilidad: Civil, penal o administrativa.

*Decimotercero:*

El Ayuntamiento no se responsabilizará de los accidentes que puedan ocurrir en la práctica deportiva.

*Decimocuarto:*

Será competencia del Ayuntamiento adoptar las decisiones oportunas sobre las dudas que se generen al aplicar este reglamento y realizar modificaciones en dicho reglamento, con el fin de mejorar el uso de las instalaciones.

El reglamento, tarifas y tabla de horarios en vigor estarán expuestos en el tablón.

*Hamabosgarrena:*

Araudi honetan ezarri ez denerako honen xedearekin zerikusia duen beste edozein legezko edo erregelamenduzko xedapenek diotena hartuko da kontuan.

*Hamaseigarrena. Xedapen Indargabetzailea.*

Indargabetuta geratuko da Eztalaren erabilerari buruzko beste edozein araudi.

*Hamazazpigarrena. Azken Xedapena.*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta handik 15 egun baliodunera jarriko da indarrean ordenantza hau.

*Decimoquinto:*

Para todo lo que no se establezca en este reglamento se tomarán en cuenta las disposiciones reglamentarias o legales que tengan relación con el objeto del mismo.

*Decimosexto. Disposición derogatoria.*

Queda derogada cualquier otro reglamento sobre el uso del campo de fútbol Eztala.

*Decimoséptimo. Disposición final.*

Esta ordenanza entrará en vigor en el plazo de 15 días hábiles a partir de su publicación completa en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.